



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

# Gradu Amaierako Lana

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2015/2016 ikasturtea**

**GAUR EGUNEKO ESKOLA XX. MENDEKO PEDAGOGIA  
KORRONTEEN ONDOTIK BEGIRA**

**Egilea: Ane Ondarroa Amas**

**Zuzendaria: Idoia Begoña Fernandez Fernandez**

**Leioan, 2016(e)ko ekainaren 29(a)n**

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala:.....	4
1.1. Erantzun beharreko galderak.....	5
1.2. Helburuak.....	6
2. Metodologia .....	6
3. Lanaren garapena .....	8
3.1. Zer da eskolan ikasten duguna? Zein eduki lantzen dugu? .....	9
3.2. Haurrak gara daitezen gaitasunak lantzea ezinbestekoa dela gogoratzen al dugu? .....	10
3.3. Badakigu ikastea zer den? Horretarako zein bide ezagutzen dugu? .....	11
3.4. Nor da irakaslea? Arbelaren aurrean dagoen hori? .....	14
3.5. Oinarri sendorik gabe jai daukagu... ..	17
3.6. Eskola eta inguruaren artean eraikitzen den zubia .....	20
3.7. Objektu izatetik subjektu izatera pasa diren ikasleak .....	23
4. Emaitzak eta ondorioak .....	24
5. Erreferentzia bibliografikoak .....	26

## GAUR EGUNEKO ESKOLA XX. MENDEKO PEDAGOGIA KORRONTEEN ONDOTIK BEGIRA

Ane Ondarroa Amas

UPV/EHU

Gradu amaierako lan honetan, gaur eguneko eskolari XX. mendeko pedagogia korronteen ikuspegitik begiratuko zaio. Etorbizuneko lanbide baten inguruan suertatzen diren hainbat galderei erantzuna bilatuko zaie. Kezka horiek eduki, gaitasun, ikas teknika, irakaslearen rola, ikasleen protagonismoa eta inguruarekiko harremanaren inguruan izango dira. Beraz, lanaren helburu nagusia galdera horiei erantzuna aurkitzea izango da. Horretarako, XX. mendeko lau autoreen lana eta hauen inguruan idatzitakoak izango dira informazio iturri. Iturri hauen ekarpenak aintzat hartuz erantzungo baitira ezarritako zazpi galdera horiek. Lan honek pertsonalki garrantzi handia du, nire irakasle formakuntzan mesedegarri izango delako eta neure beharrei erantzungo dielako.

*Edukiak, gaitasunak, ikaslea, irakaslea, ingurua*

En este trabajo de fin de grado, la escuela de hoy en día será vista desde el punto de vista de las corrientes pedagógicas del siglo XX. Se buscara respuesta a varias preguntas relacionadas con la profesión futura. Estas preguntas serán acerca de contenidos, capacidades, técnicas de estudio, rol del profesor, protagonismo del alumno y la relación con el medio. Por lo tanto, el objetivo general del trabajo será resolver las preguntas planteadas y para ello se utilizaran como referencia obras de cuatro autores y obras escritas a cerca de ellos. El trabajo tiene gran importancia personal, puesto que ayudara en mi formación y responderá a necesidades propias.

*Contenido, capacidades, alumno, profesor/a, medio*

In this paper, today's school is going to be seen from the point of view of some pedagogical frameworks of the XX<sup>th</sup> century. Questions about contents, competences, techniques to study, teachers' role, protagonism of the students and the relation with the environment will be answered. Therefore, the main objective of this work is going to answer the previous questions. For that purpose, books by four authors and different books about them will be used. This paper has a substantial personal relevance, because it helps my training as a teacher and answers personal needs.

*Contents, competences, teacher, student, environment*

## Sarrera

Gradu amaierako lan honetan, lan teoriko baten bitartez, etorkizunari begira ditudan kezka argitzen ahalegindu naiz. Lau urte hauetan zehar asko ikasi dudana arren, askotan galdetzen diot neure buruari zelan jardun beharko nukeen ikasgelan. Horregatik, kezka horiek argitzeko XX. mendeko hainbat autoreengana jo dut.

Lana egin bitartean gustura aritu naiz hainbat arrazoi direla eta. Alde batetik, interesgarria izan baita niretzat autore bakoitzaren inguruan ikertu eta ikasi dudana. Eta bestetik, lana esanguratsua izan baita niretzat. Etorkizunari begira nituen kezka argitzen eta neure burua prestatuago ikusten lagundu dit. Urte hauetan buruan zehar eduki ditudan ideia eta ezagutzak lotu, osatu eta antolatzeke baliogarria suertatu zait. Gainera, nik proposatutako gaia izatean kementsu aritu naiz, hasiera batean planteatu nuen gaia aurrera ateratzea lortu behar nuelako; neure buruari egindako erronka izan dela esan dezaket.

Lana sei atalez dago osatuta. Lehenengoa hauxe, sarrera. Ondoren, lanaren planteamendu metodologikoan kezka sakonago azaldu eta neure buruari egiten dizkiodan galderak zehaztuko ditut. Galdera horietako bakoitza helburu batekin egongo da lotuta eta hauek ere bigarren atal horretan egongo dira. Hirugarren atalean, erabilitako metodoaz eta kontsultatutako autoreen inguruan arituko naiz. Horren ostean, emaitzen azalpena dator. Bertan, aurretik adierazitako galderen erantzuna dago, XX. mendeko autoreen pentsamenduetan oinarrituz. Ondorioak izango dira hurrengo atala. Hor, galdera eta helburuek erantzun zuzen eta zehatza izango dute. Azkenik, erreferentzia bibliografikoak daude; lanean zehar erabilitako iturriak zehaztuz.

### 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

*Inoiz baino gehiago hezkuntzaren oinarritzko funtzioa gizaki guztiei pentsatzeko, iritzia osatzeko, sentimenduak izateko, irudimena izateko askatasuna ematea da, beren talentuak erabat burutu daitezzen eta ahal den neurrian, beren patua erabaki ahal izan dezaten. (Delors, 1996)*

Esaldi hau irakurtzean hasi nintzen neure buruari galdezka. Orain arte ikasi eta ikusitako gauza asko ez datoz bat esaldi horrekin, eta ez datoz bat Delors Txostenean adierazten

diren Hezkuntzaren Lau Zutabeekin. Lau zutabe horiek Ikasten Ikastea, Izaten Ikastea, Elkarrekin Bizitzen Ikastea eta Ekiten Ikastea dira.

Ikasten ikasteak, batzuetan, leku gutxi duela ikusi dut. Beste batzuetan, ikasleen izaera eta jarrerari garrantzi gutxi ematen zaio; klasea ematerako orduan traba egiten duen edo ez hartzen da kontuan soilik. Ikasleak ez daude bakarrik, ez gelan ez kalean, eta gainontzekoekin aritzen jakin behar dute; elkarbizitza gehiago landuko balitz, arazo eta gatazka asko konpondu litezke. Haurrek zelan ekin eta jokatu ikasi beharko lukete, eta ez zait iruditzen beti horretan laguntzen zaienik.

Horregatik, ikusi dudanaren eta ikustea gustatuko litzaidakeenaren arteko kontraesana sortzen da. Horrek eskatzen dit neure buruari galderak egin eta hauei erantzuna bilatzea, lau zutabe horiek garatu eta ahalik eta kontraesan gutxien izateko.

### **1.1.Erantzun beharreko galderak**

Aurretik esan bezala, hainbat kezka suertatzen zaizkit nire burua ikasgela batean imajinatzen dudanean. Kezka horiek zazpi galderatan laburbildu daitezke:

- Edukiei dagokienez, kontzeptuzkoetan zentratuko naiz? Edo prozedurazkoei eta balioei lekua egingo diet?
- Gaitasunen garapenari zein garrantzi emango diot? Zelan lagunduko dut hauen garapenean?
- Edukiak buruz ikasteko eskatuko diet ikasleei edo ikasten irakatsiko diet? Zelan?
- Zein izango da nire rola irakasle moduan? Zein funtzio izango ditut?
- Zein printzipio edo oinarri edukiko ditut kontuan?
- Eskola eta inguruaren arteko harremana bultzatzea garrantzitsua da? Zelan egin dezaket hori?
- Zein izango da ikasleen lekua? Ze protagonismo edukiko dute? Kontuan hartuko ditut euren interesak?

## 1.2. Helburuak

Lan honen helburu nagusia, ezarritako galderari erantzun bilatzea dela esan daiteke. Baina helburu hau zabalegia denez galdera bakoitzarekin loturiko helburu bat zehaztuko dut.

- Kontzeptuzko eduki, prozedurazko eduki eta balioei eman beharreko garrantzia zein den aztertzea, hauek lantzeko moduak aztertuz, eduki mota bakoitzari behar besteko garrantzia eman eta hauek behar bezala lantzeko.
- Gaitasunen garapenak zenbateko garrantzia duen aztertzea, hauek zelan garatu daitezkeen aztertuz, gaitasunen garapenean lagundu eta hauen garapena posible egiteko.
- Ikastea zer den eta honetarako bideak aztertzea, bide bakoitzak eskaintzen dituen baliabide eta abantailak aintzat hartuz, momentu edo egoera bakoitzean ikasteko modu egokiena zein den jakiteko.
- Irakasleak on batek izan beharreko rola zein den aztertzea, bete beharko lituzkeen funtzioak aztertuz, etorkizunean hartu beharreko papera zein den jakiteko.
- XX. mendeko korrante pedagogiko desberdinen printzipioak aztertzea, gure errealitatearekin lotura eginez, zein printzipiotan oinarritu erabakitzeko.
- Eskola eta inguruaren arteko harremanaren beharra aztertzea, hau aurrera eramateko bideak bilatuz, inguruarekin izan beharreko harremana zein den eta zelan bideratu erabakitzeko.
- Ikasleek eduki beharreko tokia zehaztea, haiek errespetatzea beharrezkoa dela aintzat hartuz, euren paper protagonista emateko.

Neure buruari egiten dizkiodan galderak zein diren esanda eta hauen jatorri zein den argituta, hauei erantzuna bilatu beharko diet. Zehaztutako helburuak lortze aldera XX. mendeko pedagogoen pentsamenduan oinarritu naiz. Hurrengo atalean, metodologia, emandako pausuak zehaztuko ditut.

## 2. Metodologia

Lan egiten hasteko lehenengo gauza, buruan nituen ideia eta kezkek lotu eta galderak osatzea izan da. Galdera horiei erantzuna emateko iturri bat behar nuen eta urte batzuk

atzera begiratzea erabaki nuen. XX. mendeko hainbat autore aurkitu nituen begirada horretan.

Hasteko, korrante pedagogiko nagusien eta hauen autoreen inguruan irakurri nuen, bakoitzak esaten zuenetik ideia nagusi bat hartzeko. *La Cuestion Escolar: criticas y alternativas* (Palacios: 2002) liburua eta *Hik Hasiren Pedagogo* sortzaileak teorien iturburu monografikoa (López-Goñi eta Uribe-etxebarria: 2005) erabili ditut. Behin hori eginda, niretzat ekarpen esanguratsuenak egiten zituztenak aukeratu eta horietan zentratu naiz.

Lau izan dira aukeratutako autoreak: John Dewey, William H. Kilpatrick, Ovide Decroly eta Célestin Freinet. Lehenengo hirurak Eskola Berria mugimenduaren partaideak izan ziren. Talde honek hezkuntza tradizionala eraldatzea zuen helburu nagusi; irakaslea zentro izatetik ikaslea zentro bihurtuz. Umearen izaera garatzeko beharrezko ikusten zuten gaitasunak beren osotasunean lantzea eta ikasleak gizartean bizitzeko prestatzea (Palacios, 2002). Laugarrena berriz, herri pedagogia taldean kokatzen zen. Eguneroko gizarte klaseen arteko borroka eraman zuten eskolara, behe mailako klaseei aurrera egiteko erraztasunak eman nahi zizkietelako. Ikasleek hitzaren jabetza eskuratzea zen lortu beharrekoa eta horri esker jakintza, jarrera kiritikoa eta errealtatearekin konpromisoa garatuko zuten (López-Goñi eta Uribe-etxebarria, 2005).

Lau autore hauek aukeratu ditut haien arteko hainbat antzekotasun aurkitu ditudalako eta ezarritako helburuak lortzeko bide aproposa direlako. Hasteko, laurak egin zuten lan ikasgela barruan eta egoera horretatik burutu zuten euren jarduna eta pentsamendua. Kasu honetan, neu ere ikasgela barruan egongo naizenez, ikasgela barrutik lan egin zuten autoreetan zentratzea erabaki dut; euren ikuspuntua hurbilagoa iruditzen baitzait. Eurek bizitako eskola eta egoera eraldatzearen alde egin zuten, testuinguru erreal batetik abiatuz. Eta neuk ere testuinguru erreal batetik abiatu nahi dut nire kezkei erantzuteko. Kezka horiek alor edo gai desberdinetakoak dira eta autore hauek gai horien inguruan aritu zirelako aukeratu ditut. Lotura aurkitu dut nire kezken eta euren pentsamenduaren artean; eurei buruz irakurtzean, konturatu barik nire ideiak mugitzen eta elkar lotzen hasi baitira. Gainera, laurak jartzen zuten haurra hezkuntzaren erdigunean eta bere garapena zuten helburu eta niretzat hori ezinbesteko ideia da irakasle izateko. Beraz,

zuten helburu komun horregatik eta nik landu nahieko atalen inguruan aritu zirelako aukeratu ditut eta lauren arteko uztarketa egitea posible egin izan zait.

Euren pentsamenduaren berri izateko, eurek idatzitako liburuen itzulpenak eta euren pentsamenduari buruz idatzitako liburuak erabili ditut. Liburu batzuk aurkitzea ez da erreza izan, oso zaharrak baitira eta ez dira oso ohikoak. John Deweyren *Experiencia y Educación*, *El Niño y el Programa Escolar* eta *Democracia y Educación, una Introducción a la Filosofía de la Educación* liburuen itzulpenak kontsultatu ditut. W.H. Kilpatricken kasuan, beste autore batzuekin argitaratutako bi lan kontsultatu ditut: *La Filosofía de la Educación desde el punto de vista experimentalista* eta *La Teoría Pedagógica en que se basa el programa escolar*. Ovide Decrolyri dagokionez, berak idatzitako lan bat eta berari buruz idatzitako beste bat erabili ditut: *El Juego Educativo, Iniciación a la Actividad Intelectual y Motriz* eta *Decroly, una Pedagogía Racional*. Celestini Freineten kasuan liburu bakarra nahikoa izan da bere pentsamendutik ekarpenak jasotzeko: *Técnicas Freinet de la escuela moderna*.

Liburuetatik ekarpenak jaso eta galderei erantzun ahal izateko ataletan antolatu ditut. Ideia asko inolako ahalegin barik elkartu ahal izan ditut eta autore batetik bestera bitarteko zubia aurkitu dut. Baina, lau autore horien testuingurua eta nire bereiztea eta aldi berean lotzea ez da beti erraza izan. Azken finean, euren sasoiko behar eta gabeziei erantzun zieten eta gaur egun erantzun beharreko behar eta gabeziak beste batzuk dira.

Behin jarraitutako pausuak zeintzuk izan diren ezagututa eta erabilitako informazio iturria zein izan den zehaztuta, lehenengo atalean adierazitako galderak erantzutea izango da hurrengo urratsa. Hirugarren atalean, lanaren garapena, galdera bakoitzari erantzuten dion atal bat aurkituko dugu.

### **3. Lanaren garapena**

Atal honetan, aurretik adierazitako galderei erantzuna emango diet. Horretarako, XX. mendeko hainbat autore izango ditut oinarri. Galdera horiei banan- banan emango diet erantzuna, beraz atal honek zazpi azpi atal dituela aurreratu dezaket.



### 3.1. Zer da eskolan ikasten duguna? Zein eduki lantzen dugu?

Edukiak hartuko ditut abiapuntu. Kontzeptuzko edukietan zentratuko ote naizen edo prozedurazkoei eta balioei lekua egingo didan da nire kezketariko bat. Hasteko esan beharko nuke niretzat edukia barneratzen dugun ezagutza dela, liburuetan datorrena zein gainontzekoetatik eta ingurutik ikasten duguna. Horrexegatik ez ditugu ahaztu behar prozedurazko edukiak eta balioak.

Nire ustetan hirurak lantzea beharrezkoa da, baina ez naiz hori aditzera ematen duen bakarra. W.H. Kilpatrick adibidez honen inguruan aritu zen bere hainbat lanetan. Prozedurazko edukiei dagokienez, praktika beharrezkoa dela esaten zuen; praktikatzen ez duguna ez baitugu ikasten. Gaitasunak, ideiak edo jarrerak izan daitezke, baina beti praktikatu behar dira (Kilpatrick, 1944). Prozedurazko edukiak praktikari tokia egiten diote, honen bitartez gauzatzen eta barneratzen baitira.

Gai honen inguruan hiru ideia izango ditut aintzakotzat; eduki desberdinak uztartzea, haurren mundua eta esperientziarekiko lotura eta haurren interesa piztea. Diziplinen eta edukien arteko uztarketa defendatzen zuen Ovide Decrolyk. Horretarako interesguneak eta hauek programaren abiapuntu izatea proposatzen zuen. Interesguneek diziplina desberdinak haurren interesen inguruan uztartzen dituzte. Berak esandakoaren arabera, interesguneek naturaltzat jotzen ziren beharrei erantzuten zieten. Eta gainera, horien bidez haurren motibazioak errespetatzen ziren (Besse, 1989). Baina ez zen bera izan honen alde apustu egin zuen autore bakarra; W.H. Kilpatrick edukiak bakartuta ikastearen aurka agertu zen: ikas materiak ez nituzke bakarturik irakatsiko eta ez nituzke irakasleak irakasgaien arabera espezializatuko (Kilpatrick 1951). Gaur egun bada ideia hau aurrera daraman metodoa gainera. Reggio Emiliako eskoletan irakasleek kanpo formazioa jasotzen dute eta eurek ikasitakoa transmititzen diete ikasleei; baina ez dute irakasle espezializaturik.

Aintzat hartu beharreko bigarren eta hirugarren ideia lotuta daudela esan dezaket, haurren munduan murgilduz gero euren interesa piztuko dugula uste baitut. John Deweyk (1925) zera esaten zuen: eskolako eduki eta irakasgaiek haurren mundua banatzen dute. Haurrak ikusi eta ezagutzen duenaren eta liburuan aurkitzen duenaren arteko kontraesana dago. Objektu eta benetako egoerek ikasketa eta ikerketan laguntzen

dute. Horregatik, eskola materia bizitza sozialean oinarritu beharko litzateke. Deweyk, hurrek eskolan egoera errealetatik eta bere esperientzietatik ikasten badute, bizitzan zehar edo esperientzian ikusitakoa baieztatuko dutela eta horrek ikasketa esanguratsua bermatuko duela zioen (Dewey, 1925). Gainera, materia hurren ekintza, pentsamendu eta esperientzietatik ateratzen bada hurren interesa piztuta dagoela ziurtatzen zuen (Dewey, 1925). Ikasleen interesa piztuta badago argi dago lan egiteko gogotsu egongo direla eta gainera, euren esperientziak abiapuntutzat hartzen baditugu eurak izango dira euren ikasketa prozesuaren protagonista eta gidariak.

Atal honetan, hiru eduki motak lantzeak niretzat duen garrantzia eta edukiak uztartzea posible dela adierazi nahi izan dut. Hurrengo azpiatalean gaitasunen eta hauen garapenaren inguruan arituko naiz.

### **3.2. Haurrak gara daitezen gaitasunak lantzea ezinbesteko dela gogoratzen al dugu?**

Bigarren kezka gaitasunekin lotuta dago. Gaitasunek, ditugun jakintza eta ezagutzak praktikara eraman eta aplikatzea ahalbidetzen digute; egoera desberdinei aurre eginez eta bizitzan zeharreko bidean aurrera egiten utziz. Gaitasunen garapenaren garrantzia eta garapen prozesuarekin hain zuzen. Nire ustez, gaitasunen garapenak egiten baitu posible pertsona gisa garatzea eta guztiz beharrezkoa da honek duen garrantziaz jabetzea.

Autore batzuek, gaitasunak jartzen dituzte hezkuntzaren oinarri gisa. J. Deweyk interesak ezkutuko gaitasun baten adierazle direla esaten zuen eta positiboak diren heinean landu eta garatu beharra dagoela, baina horretarako gaitasunaren helburua eta funtzioa zein den jakin behar dugu. Prozesu horretan beharrezkoa da irakasleak haurren esperientziak zein diren jakitea. Izan ere, garapena definitutako prozesua da bere legeak dituelako eta baldintza egokiak daudenean bakarrik gertatzen delako. Prozesuan zehar haurra bizitzarako prestatu behar dugula esaten zuen, bere gaitasun guztiak erabiltzeko prestatu behar dugula hain zuzen. Haurrak izan daitezen gai egoeraren arabera ze gaitasun erabili jakiteko (Dewey, 1925). Kilpatrickek bi ideia garrantzitsu gehitu zizkion Deweyren ekarpenari. Lehenengoa, prozesuan norberaren garapena bakarrik bilatzen ez dela adierazi zuen. Norbera garatu eta inguruko

garapenean lagundu eta eragitea espero dela, etorkizun positibo eta aktiboa bideratzea espero baita. Horrelako garapenak beharko lukeela gure ahaleginen helburu (Kilpatrick, 1944). Gainera, bigarren ideia hau gehitu zuen. Haurrek ikaskideekin kooperatzen ikasten dute, orden eta legeei dagokienez. Gaitasun eta jarrerak beste zer edo zer ikasi bitartean bereganatzen direla eta ezin direla aparte ikasi (Kilpatrick, 1944). Beraz, irakasle moduan garrantzitsua da gaitasunen garapenari bidea zabaltzea jarduera eta lan desberdinen bidez. Zeharka baina hauen garapenari garrantzi handia emanaz hain zuzen.

Ikus daitekeenez, gaitasunen garapenak garrantzia izan du autore hauen pentsamenduan, baita nirean ere. Horregatik, hauen garapena posible egiteko lan egin behar dela adierazi ostean, ikastearekin eta hau bermatzen duten teknikekin has naiteke.

### **3.3. Badakigu ikastea zer den? Horretarako zein bide ezagutzen dugu?**

Ikasi eta irakatsi, horrax hurrengo kezkaren abiapuntua. Betidanik entzun dugu ikasi behar dugula, ikastea garrantzitsua dela, eskolan ikasten dela... Baina zer da ikastea?

Kilpatrickek (1944) horrela definitu zuen: Ikastea, norberaren jarduteko edo ekiteko modua aldatzea da; jarduteko modu berri bat bereganatzea hain zuzen. Ikastea ahal eta ekiten denean bereganatzen da, momentu egokian. Zer edo zer ondo ikasten dugunean, nor bere kabuz agertu edo jokatzeko berezko joera bereganatzen da. Beraz, gure jarduteko modua aldatzen dugunean ikasten ari gara; jarduteko beste modu batzuk bereganatzen ari gara eta hori posible egiteko beharrezko diren ezagutzak bereganatzen ditugu.

Gauza asko ikasten ditugu, batzuk besteak baino lehenago ahazten ditugu eta beste batzuk guretzat gordetzen ditugu. Ikasketa esanguratsua gertatzen denean, ikasitakoa gorde eta aplikatzen ikasten dugu. Ulertu eta barneratzen dugu, eta beste egoera batean aplikatzeko gai izango gara. Horregatik ikasteko beharrezkoa da hezkuntza bitartekoak antolatzea, hurrei aukera emateko aztertze, hausnartzeko eta moldatzeko (Besse, 1989). Eta nire ustez, beste barik buruz ikastea ez da ikasketa esanguratsua. Egia da zenbait gauza buruz ikastea ez dagoela txarto, biderketa taulak kasu, baina buruz dakigun hori aplikatzen jakitea beharrezkoa da. Bestela, zertarako nahi dugu metatuko ezagutza guzti hori? Horregatik ezin gara konformatu liburuek dakartena irakurri,

azalpenak eman eta azterketetan teoria guzti hori galdetzearekin. Gainera, ikasten-ikastea Delors Txostenak ezartzen dituen Hezkuntzaren Lau Zutabeetako bat da, eta honen lanketan jardutea garrantzitsu ikusten dut. Azken finean gu ez gara jakitun jaiio, lanketa prozesu bati esker ikasi dugu ikasten eta ikasi dugu egun dakiguna.

Ikasketa prozesuan pentsatzerako orduan kontuan hartu beharreko kontu bat testu liburuak dira. Ez dut uste eztabaida testu liburuak behar ditugun edo ez izan beharko litzatekeenik, baizik eta hauek zelan erabili. Kilpatrickek (1951) hurrengo esan zuen gai honen inguruan: nik ez nituzke liburuak erabiliko, baizik eta kontsultarako hainbat genero eta iturri. Eta hori da Reggio Emilian egiten dutena adibidez. Ikasle guztiek testu liburu berdina izan beharrean, ikasgelan testu eta liburu desberdinak egotea aukera ona iruditzen zait. Gainera, honek ikasle eta liburuen arteko harremana bultzatzeko aukera eman dezake. Haurrek, hainbat liburu mota ezagutu eta hauetaz baliatzen ikasi dezakete eta konturatu internet ez dela iturri edo baliabide bakarra. Honela, iturri desberdinak erabiliz ikasleek aukera dute euren “ testu liburu propioa” osatzeko. Honek gainera, ikasketa esanguratsua izan dadin laguntzen duela deritzot; ikasleek eurek sortzen dutelako prozesua eta gerora ikasiko dutena.

Gainera, ikasgelan jarduteko hainbat modu dago. Decrolyk adibidez, ikasketa plan bat sortu zuen irakasleen lana umeen jakin-minaren eta tendentzien mugimendu naturalaren arabera abiarazteko. Ikasketa plan hori osatzen zuten interesguneek; beharrak eta globalizazioa aintzat hartuz sortu zuen. Gainera, globalizazioak ikasitakoak irautea bermatzen du, haurraren eskema mentalen originaltasuna errespetatzen baitu (Besse, 1989). Decrolyk (1978), interesguneak eta interesak mobilizatzeko ekintzak jolas bidez egitea proposatu zuen; ezarritako helburuaren araberrako hainbat jolas aurkeztuz. Beraz, eraginkorragoa da ideiak eta lanak uztartuz lan egitea. Jardun batean egiten eta ikasten ari garenak beste batean lagunduko digulako. Seguruenik eginbehar guztiek izango dute ezagutza eta prozedura amankomunik, eta horietatik abiatuz indartu daitezke gainontzekoak; hizkuntzen arteko transferentzian gertatzen den bezala.

Beste autore batzuek ere euren proposamenak egin zituzten. Celestin Freinetek, eskolen artean zegoen desberdintasun sozialari erantzun nahian, hainbat teknika eta tresna sortu zituen. Lehenengo ekarpen garrantzitsuenetariko bat eskolara inprenta eramatea izan zen. Inprentaren bidez haurrek eskolako egunkaria sortu zuten, eta oraindik ere eskola

askotan egunkaria publikatzen jarraitzen dute. Berak zera esaten zuen: haurrak gogotsu aritzen ziren idazketa eta inprimaketan, nahiz eta hasierako materiala oso oinarrizko izan. Jolasean parte hartzen zuten lanak zuen eraginkortasunagatik eta batez ere, kulturaren aurkitutako prozesu natural eta arrunta zelako. Emozio handia sentitzen zuten (Freinet, 1964). Azken finean, haurrek egiten duten lanak ze emaitza edo ondorio duten ikusten badute, baliotsuagotzat hartuko dute eta gogotsuago ekingo diote. Nik uste garrantzitsua dela sortzen ari garena ikustea eta egindakoa gure esku artean edukitzeko aukera izatea.

Nik neuk ere nahiago nuke ikaskideekin egunkari bat egin inora ez doazen idazlanak egitea baino, zalantzarik ez dut. Gaur egun dena edo gehiena dago eginda eta eskura. Burua martxan jarri barik edozer lortu dezakegu, guretzat ekoitzita dagoelako jada. Baina, guk sortu edo zer edo zer lortu behar dugunean jakingo genuke nondik hasi? Sortzeko aukera gutxi izaten dugu eta eskolak, nire ustez, sortzeko aukera hori eman behar du; guk sortutakotik hobeto ikasten baitugu. Gainera, sorkuntza horren prozesuan gaitasun, eduki, baliabide, trebetasun eta nahiak uztartu eta martxan jartzen ditugu. Orduan bihurtzen gara gure ikasketaren subjektu aktibo, eta orduan gauzatzen da ikasketa esanguratsua. Baina C. Freinetek teknika gehiago jarri zituen gure esku ikasleak objektu izatetik subjektu izatera pasatzeko, testu librea adibidez. Testu librean aintzat hartzen da haurraren pentsatzeko eta adierazteko jarrera, baita esperimentalki bere izaera eraiki eta bidea ezartzea (Freinet, 1964).

Beste teknika ezagun bat eskolarteko gutunak dira. Beste inguru bateko eskolekin harremana mantentzen zuten posta bidez eta beste inguru hori ezagutzeko aukera izaten zuten ikasleek elkarri idatzitako gutunei esker. C. Freinetek sortutako tekniken bitartez ingurua ikertzen eta aztertzen zuten haurrek etengabe. Teknika hauek erabiltzen zituzten eskola bateko haurrak nire buruan irudikatzen ditudanean guztiak irribarretsu eta lanean irudikatzen ditut. Eta neure burua bertan kokatu beharko banu ere horrela irudikatzen dut. Haurrak pozik dabilta euren bizitza kontatzen eta eskolako lanetan horretarako aukera badute, batzuk ez dira konturako sikiera lanean dabiltzala nire ustez. Eta askotan, inkontzienteki ikasten duguna benetan ikasten duguna dela iruditzen zait.

Ikusi dugu teknika desberdinak daudela eta egoeraren araberakoa dela horien eraginkortasuna; beti ere ikasketa esanguratsua bermatu nahi dugula aintzat hartuta. Eta

teknika hauen aukeraketa irakasleen esku gelditzen diren heinean, hurrengo atalean irakasleen funtzioez arituko natzaizue.

### **3.4. Nor da irakaslea? Arbelaren aurrean dagoen hori?**

Esan bezala, irakasleak zein funtzio bete behar duen zehaztea beharrezkoa ikusten dut, azken finean neu izango bainaiz paper hori bete beharko duena. Jakina da irakasleak edo hauen rola sailkatzeko modu desberdinak daudela, baina sailkapena ezagutzea baino garrantzitsuago ikusten dut irakasle on batek zein ezaugarri edo zer alor kontuan hartu beharko lukeen zehaztea.

Lehenik eta behin, irakasleak aurrean duen taldera egokitu behar du eta hauen beharrei erantzun. J. Deweyk (1925) esaten zuen irakasleak taldearen behar eta gaitasunak zeintzuk diren aztertu behar duela, eta aldi berean horiek aseko dituzten esperientziak eta gaitasunen garapenean lagunduko dutenak ezarri edo martxan jarri beharko ditu. Haurren beharrei erantzuteko beharrezkoa da haurren benetako interesak ezagutzeko baldintza egokiak ezartzea O. Decrolyren ustez (Besse, 1989). Baldintza horiek behin ezarrita, irakasleak haurraren inguru eta egoera identifikatu eta zeharka bideratu behar du ikasketan zehar (Dewey, 1925).

Nahiz eta irakasleak gidari lanak egin, dena ez da bere esku geratu behar. Eskolako lana pentsamendua eta ekintza uztartzea da. Kilpatrickek (1944) hainbat betebeharrak ezarri zizkien irakasleei. Horien artean niretzat esanguratsuenak hurrengoak dira: garapena eta jarrera behatzea haurra ikasteko gogoz dagoenean; beharko balu, neurri positiboak hartzea haurrak ikasten hasteko; arrakastarako baldintza egoki eta lagungarriak eskaintzea; ahaleginak behatzea eta ikasketa errazten laguntzea eta arrakasta goraiatzea, berriz ahaleginaraziz (Kilpatrick, 1944). O. Decrolyk ere esaten zuen ahaleginak haurrengan zuzendu behar zirela, hezkuntza etorkizuna eraikitze bide onenarikotzat hartzen baitzuen (Besse, 1989).

Horrez gain, C. Freinetek esaten zuen ikasgelan konfiantzazko eta laguntasunezko atmosfera sortu eta edozein oihu eta urduritasun ekiditen zela. Bere eskoletan benetan bizi zituztela eskolako orduak eta pozik zebiltzala, irakasle zein ikasle (Freinet 1964). Izan ere, eskola hauetan irakaslea prest zegoen haurraren ondoan jesartzeko eta

laguntzeko. Horrela eginez gero, haurrak arinago egingo du aurrera eta ikasi egingo du (Freinet, 1964).

Horretaz aparte, irakasleak argi eduki beharko luke aurrean dituen umeen eredu bilakatuko dela eta berak egindakotik ikasiko dutela; zentzu onean zein txarrean. Horregatik esaten zuen O. Decrolyk irakaslea ez dela bizitzatik bakartu edo aldendu behar. Ez da gizartetik kanpo agertu behar, baizik eta eredu izan behar du. Berak lagundu behar du umea bizitzaren ezagutzan, bere beharren ezagutzan eta bizirauteko baliabideenean (Besse, 1989). Horregatik beharrezkoa da irakaslea formatuta egotea eta bere lanerako prest agertzea. O. Decrolyk esaten zuen, Eskola Berria indarra hartzen ari zen momentuan, irakasleen formakuntza zela une horretan aurrera egiteko zuten trabarik handiena. Horregatik zela irakaslea bere jarrera berritu beharko lukeena, ikasle guztiak ulertu eta ezagutzan ez ezkutatzeko (Besse, 1989).

Garai hartan formazioa zen arazoa, gaur egun formazioaz aparte beste hainbat arazo ditugu. Guk unibertsitatean jasotzen dugu lau urtetako formazioa eta nahi duenak bertatik kanpo ere aurki dezake; nire ustez beharrezkoa dena gainera. Baina askok uste dute irakasle izatea liburu bat zabaldu, ariketak egin eta azterketak jartzea dela. Eta hori ez da benetako irakasle bat niretzako. Irakasle batek prest egon beharko luke bere ikasleen beharrei erantzuteko eta euren garapena ahalbidetzeko. Horretarako beharrezkoa da lanerako prest egotea; ikasi eta irakasteko prest egotea; haurrak ulertu nahi izatea eta saiatzea; baliabide eta tresnen inguruan ikertu eta euren berri izatea eta beste batzuen artean zelan ez, haurrengan izango den eraginaz kontziente izatea. Egia esan hitzez azaltzea zaila den lanbide bat dela deritzot, momentu bakoitzak berezi eta desberdina beharko lukeelako. Berezia, eskoletan sortzen den kutsu horrek berezi egiten duelako eta desberdina, momentu eta haur bakoitza desberdina delako. Horretaz kontziente den norbaitek irakasle papera ondo bete dezakeelakoan nago. Lanbide honetarako ez da nahikoa haurrak gustuko izatea, eta hori da nire ustez arazoaren jatorrietako bat.

Irakasle moduan, haurren egoera emozionalari ere arreta eskaini behar diogula iruditzen zait. Haurrak ziur eta pozik egon daitezen bermatu beharra daukagu eta horregatik interesgarriak iruditzen zaizkit C. Freineten hainbat adierazpen. Lehenik, irakasleak zuzentzeko gauza gehiegi aurkitzen baditu eta gainera haurren gogoberotasuna

zapaltzen badu, xarma amaitzen da (Freinet, 1964). Irakasleak ezin du egun osoa eman hau eta beste zuzentzen, momentu bakoitzean zer zuzendu eta zuzenketa hori zelan gidatu aurrez pentsatu beharko luke. Honi loturik, esan zuen C. Freinetk inoiz ez dugula lortuko gizabanakoa hobetzea, psikikoki eta moralki ahultzen badugu bere ahultasun eta hutsegiteak aditzera emanez. Egin behar duguna, hobe izatera bideratzea da; bere inguruan lana eta bizitza antolatuz, bere aukeretatik abiatuz (Freinet, 1964).

Neure burua irakasle bezala irudikatzean beste kontu batek ere apur bat larritzen nau. Ez nuke autoritarismoa nire klasearen parte izatea nahi, baina ez nuke nahi ikasgelako kontrola momentu oro galdu. Horrek tirabira sortzen du nire ideien artean, baina J. Deweyren hurrengo adierazpenak lasaitzen nauela esan dezaket. Ondo bideratutako eskola batean, ziurtasunez aurrera eramaten diren esperientzietan eta jarduerak egiteko baliatzen den egoeretan dagoela kontrola esaten zuen. Modu horretan, irakasleak ahalik eta gutxienetan erabili beharko lukeela bere autoritatea klasea kontrolatzeko (Dewey, 1939). Berak autoritate hitza erabili arren, autoritarismoarekin lotzen dut nik adierazpen hori. Izan ere, irakasleak gelako autoritatea du, ikasgelako gidaria den heinean ikasleek eginkizun hori eman diotelako. Eta kontrola galtzean autoritarismora jotzeko arriskua dugu. Horregatik egindako lanaren bitartez orden soziala errespetatzen bada, ikasleek orden hori ikasgelan mantenduko dute eta ez da beharrezko izango autoritarismoa erabiltzea. Horregatik egingo den lana antolatzean, lan horrek eskatuko eta eskainiko duen kontrola zein den aurreikusi beharko litzateke. Irakasleak egoera eta ikasgela kontrolpean duenean gusturago lan egingo duela argi dago eta horrek eragina izango du ikasle zein irakasle berarengan. Gainera, C. Freinetek (1964) esaten zuen irakasleak egoera kontrolatzeaz gain, konfiantzazko eta ekimenezko klima sortzen dakiela errendimendu bikaina ziurtatzen duten baldintzak sortuz. Baina nire ustez, hau posible izateko lehenago beharrezkoa da ikasgela kontrolpean edukitzea.

Irakasle batek gauza asko eduki behar lituzke buruan funtzio hauek guztiak ongi betetzeko. Baina denborak aurrera egin ahala inkontzienteki kontuan hartzen eta betetzen diren funtzioak direla uste dut. Berdina gertatzen da printzipioekin, denborak aurrera egin ahala konturatu gabe barneratuta ditugu; baina horretarako lehenago pausuak printzipio horiek ezartzea da.



### 3.5. Oinarri sendorik gabe jai daukagu...

Irakaskuntzan zein beste lan edo alor askotan printzipio edo oinarri batzuei jarraitzeari beharrezko deritzot. Oinarri bat izateak, lana egonkortzen duela uste dut. Oinarri horiei jarraituz lan eginez gero, koherentzia bat izango du nire lanak, baita abiapuntu eta helburu bat ere. Azken finean nire buruan oinarri horiek ondo finkaturik badaude konturatu barik jardungo dut euren inguruan, baina ondo finkaturik egon daitezen hainbaten artean niretzat esanguratsuenak aztertu eta nirekin eta nire jardunarekin erlazionatu behar ditut.

Nire ustetan, haurrak ez doaz eskolara liburuetan datozen edukiak ikasi, jolasorduan jolastu, bazkaldu, berriro jolastu eta berriro liburuetako ariketak egitera. Eskolak, eta irakasleak, hori baino askozaz gehiago egin beharko luke. O. Decrolyren oinarrizko printzipioetako batekin guztiz bat nator ni: norbanakoa bizitzarako prestatu nahi da; hau da, egoera anitzetara egokitzeko gidatzea (Besse, 1989). Ez litzaidake gustatuko nire ikasleek liburu bat ireki eta bertan datorrena ikasteaz gain besterik egiten ez jakitea. Eskolan eginkizun batzuk izango dituzte eta hauek bete beharko dituzte, baina bizitzak beste eginkizun batzuk ezarriko dizkie eta nik tresnak eman nahiko nizkieke eginkizun horiei erantzun ahal izateko.

Hezkuntzaren helburuaren inguruan hitz egin ostean, hezkuntzak nondik abiatu beharko lukeen zehaztu beharra dago. Nik hori oso argi ikusten dut, umea bera eta umearen behar eta interesak izan behar dira abiapuntua. Horrela ez bada, ez dut uste benetan esanguratsua izango denik ikasketa eta irakaskuntza. Haur eta talde bakoitzak behar desberdinak izango ditu eta horiei erantzunez egin ahal izango du aurrera irakasleak. Zentzua galduko luke bestela, irakaslearen beharrei bakarrik erantzungo lieke irakaskuntza prozesuak. C. Freinetek argi adierazi zuen bere eskoletan hezitzaile batzuek ordutegiak eta programak kendu zituztela ekintza guztiak haurren interes, behar eta bizitzatik abiatzeko asmoz. Haurrei euren gustura jolasten utzi zieten. Irakasleek nahikoa talentu, jenio eta aukera zutelako ikasleek garapenean lagundu eta hau aurreikusteko. Hori litzateke eskola idealaren formula (Freinet, 1964).

Beste batzuek ere haurren interesak hartzen zituzten abiapuntu. O. Decrolyk haurren benetako interesa aintzat hartzen zuen eta honen ulermen mailara egokitzen zuen

hezkuntza; gizabanakoak ikaskuntza esanguratsua bermatzeko beharrezko egoera naturalak errespetatuz (Decroly, 1978). Hezkuntza, eskola eta irakaslea dira ikasleentara moldatzen direnak eta ez askotan ikusten den alderantzizko egoera. Argi dago gaur eguneko egoera desberdina izango litzatekeela. Hasteko, haurren interesak eta beharrak desberdinak direla kontuan hartu beharko genuke. Haur askok teknologia erabili gabe jolastea zer den ez dakite, beste batzuek telebistan edo iragarkietan agertzen denarekiko interesa dute bakarrik. Eta honek zailago bihurtzen du haurren interesetatik abiatuz lan egitea. Baina beste ikuspegi batetik begiratuta, aukera bikaina da haurrei euren buruan duten mundu hori zabaltzen laguntzeko. Irakasleak zein ikasleek ahalegindu beharko dute horretan, baina ikasteko eta mundu hori aberasteko balio badu onurak izango ditu guztiengan.

Haurren interesak abiapuntutzat hartuta jardutean, ez da harrizkeoa haurrak motibaturik aurkitzea. Norberaren ideia eta interesetatik sortutakoarekin lan egin daitekeela ikusteak motibazioa pizten du. Helburu bat lortzera motibaturik bagaude, gehiago ikasiko dugu prozesuan zehar. J. Deweyk honen inguruan hitz egiten zuen bere lanetan. Motibazio falta esperientzia oinarri bezala ez hartzean sortzen zela esaten zuen. Aldiz, umeak helburu profesional bat duenean ikasketa prozesuan inplikatu egiten da eta bere helburuak lortzeko bitartekoak bilatuko ditu (Dewey, 1925).

Egun batean modu batean jardun eta hurrengoan zerikusirik ez duen batean jarduteak ez du zentzu askorik nire ustez. Egiten dugunak jarraipen bat izan behar du, lotura egon behar da egin dugunaren, egiten dugunaren eta egingo dugunaren artean. Gainera, haurrek ezin dute egunero euren jarduteko modua aldatu eta moldatu; metodo eta tresnetara egokitzeke denbora behar dute metodo eta tresna berriak eraginkortasunez aurrera eramateko. Jarraipena, esperientziak duen beste aspektu bat dela dio J. Deweyk (1939). Esperientzia batean sortutako ezagutzak eta garatutako gaitasunak tresna eta baliabide bihurtzen dira hurrengo egoerak ulertu eta eraginkortasunez jarduteko (Dewey 1939).

Saioak antolatzeko orduan hainbat aspektu hartu behar dira kontuan, nahiz eta egoera eta unearen arabera aurrez antolatutakoa bertan behera gelditu daitekeen. Beharrezko materiala eta erabiliko den teknika eta lanerako urratsak adibidez aurretik prestatu beharreko zerbait dira. Freinetek (1964) esaten zuen berak sortutako tresnak eta

materialak helburu zehatz batez erabili behar zirela; kulturizatutako norbanakoa formatu eta norbanako horiek aukera aniztasuna izateko. Azken finean, material guztiek ez dute edozer lantzeko balio eta guk lortu nahi dugun helburuaren arabera materiala aukeratu behar dugu. Eta ez materiala bakarrik, landu nahi dugunaren arabera teknika batzuk besteak baino aproposagoak izango dira. Materiala eta teknikez gain, denbora ere antolatu beharra dago. Niretzat aspektu zaila da hau. Praktiketara egon bitarteko esku hartzeetan denbora kalkulatu behar izan dugu gure sekuentzia didaktikoa osatzeko eta zaila izan da honetan asmatzea. Batzuetan labur eta besteetan luzeegi, baina aurretiko antolaketa bat beharrezkoa da. C. Freinetek ere ahala zeritzon: beharrezko ikusten dut materiala antolatu ondoren denboraren erabileran pentsatzea. Denboraren antolaketak malgua izan behar du, haur bakoitzak bere erritmoan eta bere temperamentuaren arabera jardun dezan (Freinet, 1964). Baina ez dugu ahaztu behar, guk bezala haurrek atsedendaldiak behar dituztela. Elise Freinetek esaten zuen eskolako lana deskantsurako une txikiekin tartekatu behar zela. Horrek irakaslearen lana arintzen zuela, haurrari aukera emanez ihes egin eta amesteko; amets egitea beti baita ona (Freinet, 1964).

Askotan hainbat traba aurkituko ditugu, eta egoera horietan zelan jokatu jakitea beharrezkoa da. Kontua ez da urduri jarri eta beste albo batera begiratzea, oztopo horiei aurre egin behar zaie. W.H. Kilpatrickek esaten zuen aurkitzen ditugun oztopoak murrizten saiatu behar garela, beharrezko garrantzia eman behar diegula orain zer egingo dugun erabakitzeke ordutan. Oztopo bat aurkitzean ez dugu beste aldera begiratu behar, hauek murriztu behar ditugu gure idealak lortu ahal izateko. Arazoak konpontzea, ekiteko modua aurkitzea da (Kilpatrick, 1944). Beste batzuetan, oztopoak aurkitu beharrean zuriz geratzen gara zer egin ez dakigula. Horretarako ere autore berak jarraibide batzuk idatzi zituen. Lehenengo egoera aztertu behar da, zein beste aukera dagoen ikusteko; ez baditut aukera guztiak ondo aztertzen, egokiena baztertu dezaket. Behin egoera aztertuta, aukera edo alternatiba bakoitzak izan ditzakeen ondorioak aurreikusi behar dira eta horretarako esperientziara jo behar da. Egitea posible dena aztertu behar da ondoren eta egokiena bilatu. Emozio eta baloreek eragina izango dute erabaki horretan. Azkenik aukera bat besteen gainetik geldituko da eta aukera hori da hartu beharrekoa (Kilpatrick, 1944).

Arau eta askatasunaren arteko lotura ere aurretik argi eduki beharreko kontua dela deritzot. Ez dut uste inolako arau barik taldeak funtzionatu dezakeenik, baina arau

horiek ez lituzke irakasleak bakarrik jarri beharko. Irakasleak bakarrik jarritz gero, ikasleek inposatuta jasoko dituzte eta baliteke ez betetzea edo horregatik arazoak izatea. Arauak ez dira ezarri behar, haurrek arauak ikasi eta sortu behar dituzte. Bizitza onarekin dugun ideia betebeharrak morala bihurtzen dugu eta betebeharrak moral hori onartu egiten dugu jarrerarik egokiena zein den erabaki eta errespetatzeko (Kilpatrick, 1951). Horregatik haurrek aukera izan behar dute euren taldeko arauak sortzeko, nahiz eta irakasleak bideratu eta lagundu beharko lituzkeen. Gainera ezartzen diren arau horiek, norberak bere burua kontrolatzen badu, ez dute askatasunik mugatu behar eta ez dute inor gustukorik ez duen ezer egiten behartuko. Mugaturik ez sentitzea beharrezkoa da gustura lan egiteko eta ikasteko, mugaturik sentitzen den haurra ez da motibaturik egongo eta zaila izango da ikasketa esanguratsua bermatzea. J. Deweyk (1957) esaten zuen kontrol sozialerako ez dela beharrezkoa askatasuna urratzea. Gainera, mugimendu askatasuna izateak pentsatzeko askatasuna ahalbidetzen du. Askatasun hori gabe irakasleak ezin ditu bere ikasleak ezagutu eta haienganako ezagutzak sortu (Dewey, 1957). Askatasunaren ideiarekin loturik, Decrolyk berak sortutako jolasen inguruan zera esan zuen: haurrak jolasa gustuko duela adierazten du, bertan askatasuna eta sortzeko aukera izateaz gain, adierazteko aukera duelako. Eta guztion onurarako helburu bat lortzeko lan egiten ikasten du (Decroly, 1978). Beraz, ondorioztatu dezaket haurrek burutzen dituzten jarduerak adierazteko eta sortzeko askatasuna beharrezko dutela. Askatasun hori emanez gero, jarduera euren ideietatik abiatzeaz gain, eurak ezagutzeko aukera dago eta haurren beharrei erantzuteko lehenengo eurak ezagutu beharra dago.

Esan bezala, printzipio batzuetan oinarritzeak gure lanari egonkortasuna eta jarraikortasuna ematen dio. Asko dira printzipioak eta hauek kontuan hartzen dituzten atalak. Eta ez dugu ahaztu behar errealitatea gure ikasgelara txertatzeko printzipioa, horregatik hurrengo atalean inguru eta errealitatearekiko harremanaren inguruan arituko naiz.

### **3.6. Eskola eta inguruaren artean eraikitzen den zubia**

Eskola gure bizitzaren eta gizartearen parte den heinean, inguruaren parte ere bada. Baina ez dut uste beti eskola inguruan integratzen denik, eta alderantziz. Eskolak inguruan eragin beharko luke eta inguruak eskolan. Eskolaren inguruak ezaguna

beharko luke ikasleentzat eta bertatik ikasteko aukera aprobetxatu beharko litzateke eta honen inguruan aritzen dira landutako autoreak.

J. Deweyek (1925) esan zuen: eskolak momentuko testuingurua eta bizitza adierazi behar du. Umea garatzeko baliabideen topagune behar du, bere ingurua eta etxea bezain erreal. Eskolak bizitza soziala sinplifikatu behar du. Eta ideia horri jarraipena eman zioten beste autore batzuek ere. O. Decrolyk zioen: garrantzitsua da baliabideak inguru eta egoerara moldatzea; momentuko beharrak eta baldintza lokalak aintzat hartuz, umea abiapuntua dela ahaztu barik (Besse, 1989).

Testuingurua integratzeko, eskolaren eta kanpoko munduaren arteko lotura aztertu beharra dago. Norbanakoak mundu batean bizitzeak, zenbait egoeretan bizi direla esan nahi du. Horrek esan nahi du lotura eta interakzioa dagoela norbanakoaren eta bere inguruko objektu eta beste pertsonen artean. Egoera eta interakzioa lotuta doaz, norbanakoaren eta bere inguruko egoeraren arteko interakzioak egiten baitu esperientzia horrela izatea. Inguruko egoera da esperientzia sortzeko beharrezko gaitasunak baldintzatzen dituen (Dewey, 1939). Baina ez dugu ahaztu behar interakzio horretan kulturak ere zeresan handi duela. Kultura eta hezkuntzaren arteko lotura dago; umeek kulturaren oinarriko elementuak ikasi behar dituzte kultura hori bizi ahal izateko. Horrela ezartzen da kultura irakastea hezkuntzaren lehenengo betebeharrak moduan (Kilpatrick, 1951). Eskolak kultura irakastea du, eragile sozial bezala duen funtzioa eta. J. Deweyek (1925) esaten zuen eskola instituzio soziala zela, bizitza sozialean parte hartzeko baliabideak eta bideak batzen zirela bertan. Era berean, eskolak ikaslea gizartearen parte sentiarazi eta gizartean funtzio erabilgarria izateko prestatu behar zuela esaten zuen (Dewey, 1925).

Baina eskolak testuingurua aintzat hartzen ez duenean, muga bat ezartzen da haurren errealitatearen eta eskolaren artean. Haurrak mundu bat du eskolatik kanpo eta beste bat eskolan, elkarren artean ia harremanik ez dutenak. C. Freinetek esaten zuen bizitzaren eta eskolaren arteko banaketa argia zegoela. Behartutako lanek, behartuak izateagatik lan biziaren onurak galtzen zituela; ezertarako balio ez zuela eta gustuko ez genituen beharrak bihurtzen zirela (Freinet, 1964). Beraz, bi mundu bereizteaz gain, askotan eskolak ezarritako mundu horretan beharturik lan egiten dugula esan daiteke. Gurekin

loturarik ez duten jardunak behartuta burutzen ditugu eta interesgarri izan litekeen ariketa aspergarri edo desatsegin izatera pasatzen da.

Baliteke hezkuntza gure bizitzatik kanpo uzten dugulako hori gertatzea. Baina aintzat hartu behar dugu hezkuntza bizitzaren barruan dagoela. Bizitzaren prozesuaren parte da eta bizitzak zentzua izan dezan laguntzen du. Bizitzan emandako pausu bakoitzak ikasketa bat adierazten du eta horregatik bizitzan ez bada ikasketa txertatzen gure programak huts egingo du. Seguruenik eskolaz kanpo ikasten duguna baliagarriago izango baita eta eskolakoa bertan behera utziko dugu (Kilpatrick, 1944).

Askotan ez gara konturatzen haurrak ez duela mundua guk bezala interpretatzen, eurek euren mundu propioa dutela. Haurrak gauzak bere inguruan dauden moduan ikasten dituela esaten zuen Decrolyk, osotasun baten barruan ulertzen dituela (Besse, 1989). Gainera, haurren munduan parte hartzen duten pertsona zein ezaugarriek berarekin jarraitu behar lukete eskolan eraikiko duen beste mundu horretan. Horrela zioen C. Freinetk (1964): eskola bizi batek familia eta inguruaren bizitza naturalaren jarraipena bermatzen du.

Beraz, eskolak haurraren munduari jarraipena eman eta inguruari erantzuteko esperientzian oinarritu beharko luke; esperientziak kontuan beregain hartzen baititu umearen errealitatea eta ingurukoa. Esperientzia ez da ezerezetik sortzen, norbanakoaren inguruan esperientzia sortzea posible egiten duten iturriak daude eta haietatik etengabe edaten du esperientziak. Gainera, esperientzia guztiek aurretik gertatutako zer edo zer batzen dute eta gertatuko direnak moldatu edota hauetan eragiten du (Dewey, 1939). Horregatik, haurrak bizitakotik sortzen da eta bere errealitatean aurrera egitea ahalbidetzen dio. Esperientzietan oinarrituta ikasteak momentu eta egoerari moldatu eta erantzuteko aukera ematen digu. Bizi garen denboran bizi gara eta ez beste batean, momentuko esperientziei zentzua bilatuz eta ateraz bakarrik presta gaitzke etorkizunean ere berdinean egiteko (Dewey, 1939).

Inguruarekiko harremana benetan garrantzitsua dela ikusi dugu atala honetan. Inguruak eskolan integratuta beharko lukeela eta haurra inguruan bizitzeko prestatu beharko genukeela hain zuzen. Ikaslea bada inguruan integratu behar dena eta bizitza bizitzen

ikasi behar duena, ezingo nuke lan honekin aurrera egin ikasleari eta honen tokiari azkeneko azpi-atal bat eskaini barik.

### **3.7. Objektu izatetik subjektu izatera pasa diren ikasleak**

Ikasleei eta hauen tokiari buruz hitz eginez amaituko dut hirugarren atala. Hainbat direlako honen inguruan sortu zaizkidan zalantzak. Hasteko esan behar niretzat ikaslea dela prozesuaren protagonista eta bere garapena ahalbidetzeko eta bere beharrei erantzuteko egin behar du lan irakasleak. Arazoa da ez dagoela ikasle bakarria ikasgelan eta guztien garapena ahalbidetu eta beharrei erantzutea ez dela batere lan erraza.

Lanean zehar argi ikusi dut landutako autore guztiek jartzen dutela haurra euren lan eta ahaleginen abiapuntu. J.Deweyk (1925) adibidez, hurrengo esaten zuen: hezkuntza barrutik kanpora doan garapena da. Hezkuntzaren abiapuntua haurren barne ahalmena eta instintuak dira.

Ikasleen garapena ahalbidetzeko eta beharrei erantzuteko gauza asko hartu behar dira kontuan. Baina hasteko, haurra den modukoa errespetatu behar da. Haurra errespetatzeko bere munduari eta interesei lekua egin behar zaie eskolan. Kontuan hartu behar dugu haurrentzat klasera sartu aurretik hasten dela eskola, haurrak bere sokarekin heltzen direla (Freinet 1964) eta soka horri loturik euren mundua ekarriko dutela. Horregatik, umeen mundua ez apurtzeko eskolak errealitate egonkor eta antolatua erabili behar du (Dewey, 1925). Horrela behar du izan, haurrek euren errealitatea besterik ez dutelako ezagutzen. Haurrek ez dute errealitatea guztiz ezagutzen, euren ingurua bakarrik ezagutzen dute. Euren interesen arabera mundua sortu eta ezagutzen dute. Eta helduak haurraren bizitzan sartu nahi badu, haurraren interesak aztertu beharko ditu (Dewey, 1925).

Haurrak errespetatu nahi baditugu, euren asmo eta intentzioak aintzat hartu behar ditugu (Kilpatrick, 1944). Ezin dugu esan haur bat den moduan errespetatzen dugula, bere munduan jarduteko dituen asmoak mugatzen badizkiogu. Gainera, C. Freinetek esaten zuen bezala, haurrak euren lanez harro egon daitezten lortu behar dugu. Horrela posible izango baita munduaren amaieraraino bideratzea (Freinet, 1964). Baliteke batzuek erraz lortzea munduaren amaieraraino heltzea, baina beste batzuek gure laguntza beharko

dute horretarako eta gu prest egon behar gara horretarako, ez dugu gutaz aprobetxatzen ari direla pentsatu behar. Bestela, gogoratu C. Freinetek (1964) esan zuen beste hau: hurrek laguntza eskatu eta erabiliz hazteko berezko beharra dute; baina eurak dira laguntzari uko egiten diotenak behar ez dutela sentitzen dutenean.

Haurrak bere bidean aurrera egin dezan, aukera eta askatasuna eman behar diogu. Haurra askatasunean, ikaskidez inguratuta, ez da arduratzen. Bizitzak bere gain hartzen du eta aurrerantz bultatzen du, ziur eta optimismoz beteta (Freinet, 1964).

Amaitzeko, pentsatu behar dugu haurrak ez direla beti eskolan egongo. Eskola amaitu eta mundura salto egingo dutela eta horregatik garrantzitsua da horretarako prestatzea. Gure ikasleak etorriko diren egoerarako prestatu behar ditugu, oraindik guretzat ezezagunak izango diren egoerarako. Ezin diegu euren arazoen konponbidea zein den erakutsi, ez dakigu zeintzuk izango diren arazo horiek eta are gutxiago erantzuna. Bakarrik, etorkizunari aurre egiteko prestatu ditzakegu gure gazteak (Kilpatrick, 1951).

Ikusi bezala, hirugarren atal honetan, lehenengo atalean ezarritako galderak landutako autoreen ekarpenekin erantzun ditut. Lau izan dira kontsultatutako autoreak eta hamaika izan dira eurengandik jasotako ekarpenak. Laugarren atalean, ondorioak, galderei berriro erantzungo diet erantzun zehatzago batez; ekarpen horietatik ondorioztatu dudana adieraziz.

#### **4. Ondorioak**

Amaitzeko, planteamendu metodologikoan ezarritako galderei erantzun zuzenago eta zehatzago bat emango diet; oraingoan autoreen pentsamenduek egin dizkidaten ekarpenak aintzat harturik. Horretarako modurik argiena galdera berriro egin eta erantzutea dela iruditzen zait.

*Edukiei dagokienez, kontzeptuzkoetan zentratuko naiz? Edo prozedurazkoei eta balioei lekua egingo diet?*

Argi daukadan lehenengo gauza da kontzeptuzko edukiak, prozedurazkoak eta balioak lantzea beharrezkoa dela. Elkarri lagundu egiten diotela eta batera ikasi daitezkeela ikusi dut, baita praktikaren bitartez ikasten dugula ongien. Gainera, edukiak uztartzea



modu egokiena iruditzen zait lanean jarduteko. Guk errealitatea loturen bidez ikusi eta ulertzen badugu, eskolan ere loturen bidez ikasi beharko genuke.

*Gaitasunen garapenari zein garrantzi emango diot? Zelan lagunduko dut hauen garapenean?*

Gaitasunak garatzea da pertsona moduan hazteko eta garatzeko bidea nire ustez. Horregatik eskolan beharrezkoa da haurrei gaitasunak garatzen laguntzea. Gainera, gaitasunak hezkuntzaren oinarritzat hartzen baditugu, gure antolaketa eta jarduna bertatik hasi beharko dugu; egiten dugunak hauen garapena posible egin dezaten. Honek posible egingo du haurra bizitzarako prestatzea, gai izango baita bizitzak ezarriko dizkion egoera eta arazoei aurre egiteko.

*Edukiak buruz ikasteko eskatuko diet ikasleei edo ikasten irakatsiko diet? Zelan?*

Teknika batez zein beste batez, ikasketa esanguratsua bermatzea izango da nire helburua. Honek bermatzen baitu ezagutzak benetan ulertu, barneratu eta aplikatzen jakitea. Horretarako badaude ikasketa teknika asko. Gaitasunak garatzen lagundu, errealitatea kontuan hartu eta haurren beharrei erantzuten dioten teknikak dira aproposenak niretzat.

*Zein izango da nire rola irakasle moduan? Zein funtzio izango ditut?*

Irakaslearen ardura nagusia haurren beharrei erantzutea eta euren garapenean laguntzea dela uste dut. Irakasleak behar horiek ezagutzen saiatu beharko lirateke, haurren parean jarriz eta elkarren arteko “muga hierarkikoa” apurtuz. Horretaz gain, irakasleak une eta egoerak sortu behar ditu haurrek euren garapenean aurrera egin dezaten. Berak beharko luke ikasgelako gidari eta laguntzaile; haur bakoitzari bere bidea errazten diona. Gainera, eskola eta inguruaren arteko zubi lana egin beharko luke.

*Zein printzipio edo oinarri edukiko ditut kontuan?*

Ikasleak bizitzarako prestatzea jarraitu beharreko printzipiotzat hartzen dut. Eskolatik kanpo taldean bizi bagara, eskolan taldean jarduten ikasi behar dugu. Ikasleak bizitzarako eta bizitzeko prestatu behar baditugu, eurek izan beharko dute gure lanaren abiapuntua. Honetaz gain, garrantzitsua da gure lanak jarraipena izatea. Beharrezkoa da horretarako, ezartzen ditugun helburuek euren arteko lotura izatea eta egiten ditugun jardueren artean zentzuzko lotura bat egotea.

*Eskola eta inguruaren arteko harremana bultzatzea garrantzitsua da? Zelan egin dezaket hori?*

Eskola eta inguruaren arteko harremana guztiz beharrezkoa dela deritzot. Hamaika modu dago harreman hori gauzatzeko, baina ez da nahikoa irakaslea eta guraso talde txiki bat prest egotea; eskola komunitate osoak egon behar du prest. Baina bitartean, haurren munduari tokia eginez, errealitatea gertutik aztertzen eta honen berri izaten lagundu diezaioke irakasleak haurrari.

*Zein izango da ikasleen lekua? Ze protagonismo edukiko dute? Kontuan hartuko dituzte euren interesak?*

Ikasleek beharko luketela euren ikasketa prozesuaren protagonista argi izan dudana da. Baina lau autore hauek esaten zutena aztertu ondoren are argiago daukat. Ikasleetatik abiatuz egin dezakegu ikaslea protagonista eta modu berean, erantzun diezaiekegu bere beharrei. Bestela ez litzateke ikasketa prozesu bat izango, irakaslea protagonista duen irakaskuntza prozesua baizik.

Amaitzeko, lan honetatik bi ondorio orokorra atera nahiko nituzke. Lanean zehar ikusi dut alde batetik zein garrantzitsua den iturrietara jotzea gure ideia eta nahiak lotzeko eta beste aldetik, ideia horiek oinarri bat izanez gero posible dela aurrera eramatea. Ezagutzen ez nituen autore eta korrante pedagogikoen inguruan ikertuz asko ikasi eta disfrutatu dut, nire jakin-mina piztu baitute eta oraindik ere gehiago ikasteko gogoz gelditu naiz; beharbada beste autore batzuek ere zer zioten ikertzea izango da hurrengo lana. Eta gainera, buruan zehar nituen ideiak lotu eta egonkortu ditudala deritzot eta neure burua prestatuago ikusten dut etorkizun baterako. Landutako ideiak barneratu ditudalakoan nago eta horrek ziurtasuna emango dit biharko egunean nire ikasleak aurrean ditudanean.

## **5. Erreferentzia bibliografikoak**

- Besse, J.M. (2013). *Decroly, Una Pedagogía Racional*. (Itzulp. Patricia Martínez Falcón). México: Editorial Trillas (Originala frantsesez 1989).

- Decroly, O. eta Monchamp, E. (1986). *El Juego Educativo, Iniciación a la Actividad Intelectual y Motriz*. (Itzulp. Olasagasti, M.). Madrid: Ediciones Morata (Originala frantsesez 1978).
- Delors, J. (1996). *XXI. Menderako hezkuntzari buruzko hezkuntza: altxor ezkutua. Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena*. Gasteiz: Eusko jaurlaritza
- Dewey, J. (1967). *Experiencia y educación*. (Itzulp. Luzuriaga L.). Buenos Aires: Ediciones Losada (Originala ingelesez 1939).
- Dewey, J. (1999). *El Niño y el Programa Escolar*. (Itzulp. Luzuriaga L.). Buenos Aires: Ediciones Losada (Originala ingelesez 1925).
- Dewey, J. (2004). *Democracia y Educación, una Introducción a la Filosofía de la Educación* (Sexta Edición) (Itzulp. Luzuriaga L.) Madrid: Ediciones Morata (Originala ingelesez 1916).
- Freinet, C. (1984). *Técnicas Freinet de la escuela moderna*. (Itzulp. Julieta Campos). Madrid: Siglo Veintiuno de España Editores, SA (Originala frantsesez 1964).
- Kilpatrick, W.H. (1967). La Teoría Pedagógica en que se basa el programa escolar. En Kilpatrick, W.H., Rugg H., Washburne, G., Bonner, F.G., *El Nuevo Programa Escolar* (39-72 orr.) (Itzulp. Luzuriaga L.) Buenos Aires: Losada (Originala ingelesez 1944)
- Kilpatrick, W.H. (1967). La Filosofía de la Educación desde el punto de vista experimentalista. En Kilpatrick, W.H., Breed, F.S., Horne, H.H., Adler, M.J., *Filosofía de la Educación* (15-74 orr.) (Itzulp. Luzuriaga L.) Buenos Aires: Losada (Originala ingelesez 1951)
- López-Goñi, Irene; Uribe-Etxebarria, Arantxa (Koord) (2005) *Pedagogo sortzaileak teorien iturburu*, Hik Hasi Monografikoak 17 zkia. Lasarte: Xangorin.
- Palacios J. (2002). *La Cuestión Escolar: Críticas y Alternativas*. Barcelona: Ediciones Laia.